



Kanalak

Kanala atala hiru zatitan banatuko dugu:

- 1- Bezeroekin edukiko dugun komunikazioa.
- 2- Gure produktuen banaketa.
- 3- Gure produktuen salmenta.

Bezeroekin edukiko dugun komunikazioa

Bezeroekin edukiko dugun komunikazioa bi zatitan banatzen da: denda arrunta (herrikoa) eta denda online. Bietan bezeroarekiko arreta eskaintzen dugu. Denda arruntean edozein langilea zutaz arduratu daitezke eta denda onlinean email baten bidez kontaktuan jarri. Hauxe da gure gmail : eganeri@gmail.com

Hortxe nahi dituzten kezkak edo arazoak bidali ahal dizkigute eta gu 3-5 lanegunen artean erantzungo dugu. Hori egiten ez badugu, gure telefono zenbakira deitu ahal duzue: 944998821. Telefono zenbaki hau lanegunetan egongo da ordutegi honekin: 10:00-13:00/ 16:00-20:00.

Gure produktuen banaketa

Beste aldetik, banaketa-zerbitzua eskaintzen dugu. Zerbitzu hau ez da berdina denda arruntean edo denda online-an erosten baduzu. Denda arruntean erosten baduzu, suposatzen da herrian edo herritik gertu bizi zarela; orduan, zure orga egunean bertan iritsiko da zure etxera. Zerbitzu hau, noski, dohainik da.

Aldiz, denda online-an erosten baduzu, zure orga ez da egunean bertan iritsiko zure etxera. Espainian bizi bazara, aste batean edukiko duzu etxean (5 lanegunetan). Espainian bizi ez bazara, 7 egunetik 40 egunera izango da. Hemen kontuan hartuko da non bizi zaren. Frantzian bizi bazara denbora gutxiagoan helduko da orga eta Australian bizi bazara denbora gehiago, hau logikoa da. Zerbitzu honen kostua ez da beti berdina izango; zenbat eta urrunago bizi orduan eta gehiago ordainduko duzu.

EGANERI



Gure produktuen banaketan publizitatea garrantzitsua da ere. Gure helburua da zenbat eta herri gehiago gure orgak erabili eta horrela gure enpresa gora egingo du. Hori gertatzean, lehentxeago azaldu ditugun helburuak lortuko dira, adibidez, kontaminazioa murriztea eta herriko biztanleen harremanak sustatzea.

Publizitatea hasieran modu merkean egingo dugu, kartel batzuk herrietan, zenbait iragarki interneten... Baina gure ustez publizitaterik onena gure bezeroak egingo lukete, hau da, beraiei gustatzen bazaie bere lagunei gomendatuko liteke eta horrela pixkanaka-pixkanaka jendea EGANERI ezagutuko zuen.

Amaitzeko, gure ustez, publizitaterik onena egin ahal izateko produktu ona egitean jarri behar dugu arreta; hau da, oso diru gutxi erabiliko genuke publizitaterako diru hori orgetan erabili ahal izateko.

Gure produktuaren salmenta

Gure produktua bi bide erabiliz salduko dugu: denda arrunta eta denda online. Bietan erabaki dugu produktu gehiago saltzea, adibidez, erosketarako oihalezko poltsa, orgetarako giltzarrapoak, orgetan jartzeko euritakoak... Produktu guzti hauek arruntak, pertsonalizatuak edo diseinu bat edukiko dute orgak bezala.

Beste aldetik, noizean behin, deskontuak eta opariak emango ditugu. Deskontuak orgen kopuruaren arabera edo ezintasunaren arabera emango dira. (diru-sarreretan gehiago azaltzen dugu). Opariak emateko puntuak gastatu behar dituzu. Puntuak EGANERI bezero txartelean jarriko dira eta erosketen proportzionalak izango dira. Euro bat puntu bat, euro bi puntu bi... Hauek dira gure bezeroen txartelak:

